

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

EUSKAL ESTATURANTZ: EUSKARA, BATASUNA, NAHIA, ERABAKIA

Euskal abertzaletasunari begiratu bat emanez eta euskal nazioaren desfioez eta euskal erakundeek ekarriaz gogoeta egitean, ezinbestean datorkit jatorrizko aldarria, goiburu eta helburu politikoa: Euskadi herri aske egiteko sortu zela orain ia 119 urte Eusko Alderdi Jeltzalea eta XXI. mendean ere horretan ari dela alderdiak mugitzen duen abertzaletasuna, herritar askoren laguntzaz, demokraziari bidea zabaltzeko eskatuz. Ikur batzuk ditu ibilbide horrek, noiz edo noiz mugarriak -Lizarran, Loiolan- eta, sasoi honetan Agirre lehendakaria sarri gogoratzen dugunez, hark behin eta berriz azpimarratu zituenak, gaur ere baliotsuak: euskararen garrantzia eta euskaldunon

batasuna Euskadi askea eraikitzeko, herri eskubidea eta gehiengoaren borondatea betez.

ERREALITATEA ETA IDEOLOGIA ABERTZALEA

Helburuek eta egitasmoek, jakina da, lur bat izaten dute: errealitatea. Sinetsita nago EAJk garatu duen abertzaletasunak, ideologia bezala, herritarren artean duen konfiantza eta onarpen handia ulertzeko gako bat hemengo nortasunetik jaiotako ideologia politikoa izatean dagoela. Ez da abertzaletasun arrotza, ezta ere abstraktua, euskal ezpalekoa baizik, hemen errotua eta zehaztua. Esan nahi dut herriaren burujabetza eta askatasuna pertsona bere buruaren jabe eta aske izatearekin uztartu dituela euskal abertzaletasun nagusiaren ideologiak, hasieratik gaur arte. Funtsezkotzat daukat hala jarraitzea. Euskadin aurrera egin duen eredu politikoa, erakundeak barne, ez dator kapitalismoaren indibidualismotik ezta marxismoaren kolektibismotik ere. Euskal abertzaletasunaren eredu zabalak bi aldeak uztartu ditu: pertsona eta herria, herri askea eta pertsona askeak, askatasuna lorpen dinamikotzat hartuz.

Gaurko printzipio etiko eta demokratikoetara ekarrita: giza duintasuna eta gizakia nahiz giza eskubideak dira ororen



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO PRESIDENTEA

KEZKATZEKO IRUDITZEN ZAIT HERRI HAU ABERTZALETASUNAREN BARRUKO HEGEMONIA BORROKARA ERAMATEA. EZIN DUGU HORRELAKO DINAMIKA ZATITZAILERIK ONARTU

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAK EZ DU HERRIA ZATITZEN; ERABAKITZEN EZ UZTEAK ZATITZEN DU, ESKUBIDE URRAKETA DELAKO

gainetik eta aurretik daudenak, kausa edo ideia politikoak izan edo Estatu arrazoia; eta lurralde batean modu baketsu eta demokratikoan defenditzen den proiektu politiko oro gara daiteke inolako eragozpenik gabe. Bi giltza horiek dira euskal abertzaletasunaren ardatza eta Euskadi politikoki eraikiz doazenak.

Ideologia horren arabera izan dira moldatuak erakundeetako politikak eta proiektu abertzale nagusia. Herritarra herriarekin eta herria herritarrarekin, bi alde horiek batera onartu ditu euskal jende gehienak, ez bata soilik eta bestea ez. Bi-biak. Nire ustez, hor asmatu du abertzaletasun nagusiak. Halabaina, abertzaletasun eredu honi indarra kentzeko ahaleginak ez dira txantxetakoak. Gure oroimenean dago Madrilen moldatutako *egia faltsua*: euskal erakundeek eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, indarkeria errenta zutela, konplizeak eta anbiguoak zirela ETArekiko. Hori ez da bidezkoa. Errealitatea bere osoan eta errotik hartuta, benetako bakeak alde

etikoa eta politikoa ditu, eskubide indibidualak eta kolektiboak.

Aspaldikoa da Estatu espainiarraren asmoa -eta frantsesarena ere bai- euskalduna espainiartzeko -halaber frantses- teko-. Nahiz eta arrazoi demokratikoz ahula izan, bitarteko ugariak eta ahaltsuak ditu Estatuak, hasi komunikabideetatik eta epaitegietaraino, informazioa eta justizia politizatuta, itun antiterrorista hitzez amaitua baina espirituz indarrean. Estatu saiatuko da “abertzaletasunaren gatza gezatzen”, ahaleginduko da euskal auzi politikoa agenda politiko eta informatibotik ezabatzen, dagoenik ere uste ez dezagun, edo ahaztu dezagun. Horretan dabil Madril, ez era zakarrean eta bortitzean, baizik eta leunki eta emeki, ohar ez gaitzen. Joko maltzur horren aurrean politikan eta gizartean ez dagokigu axolagabe eta eroso gelditzea. Erasoa Euskadiren aurkako denean, geuri erasotzen digute, gure erakundeen eta jendearen ahalmen eta eskubideei.

MUNDU BERRIRAKO GILTZAK: EUSKAL IDENTITATEA ETA HERRIAN ERROTUA IZATEA

Nabarmentzekoa iruditzen zait abertzaletasunak eskaintzen duen osagai bat: identitatea. Globalizazioaren eta pluraltasunaren garai hauetan -egia esan, noiz ez-, behar-beharrezkoa dugu nortasuna izatea norbanako bezala eta herri bezala. Batek,

pertsona edo herri izan, ezinbestekoak ditu oroimena, kultura eta balio egituratzaileak eta, aldi berean, noranzko bat eta motibazioa, bizitzeko eta munduan ibiltzeko. Bestela, besteren arabera ibiliko gara, alienatuta, noraezean. Batek, maila indibiduallean nahiz kolektiboan, beharrezkoa du nortasuna inguruarekin harremanean jartzeko, bestearekin elkarriketatzeko eta ados jartzeko. Nortasuna galdu ezker, zer hitz egin, zer eskaini eta zer eskatu, nola hitzartu ezer... Ezinezkoa da. Konbentzitura nago XXI. mendeko herriak nortasundunak izango direla, eta bestela husteko arriskua izango dutela globalizazioaren ur handietan. Beraz, uste sendoa dut euskaltasuna lantzea eta indartzea dela abertzaletasunaren zeregin garrantzitsuetako bat, anitzak eta identitate propiorik gabekoak garela diotenei jaramon egin gabe. Azken batean, horrela aritzen direnak espainiar porrokatuak izaten dira.

BATASUNA DA GILTZA NAZIO ESKUBIDEAK GAUZATZEKO ETA NAGUSIKI BI FAMILIA ABERTZALE HANDIEK ERAGIN DEZAKETE

Nortasun-ezaugarrien artean hemen pare bat aipatu nahi ditut, iraganean balio zutenak eta gaur egun nahiz etorkizunean bizkarrezurra emango digutenak. Aurrenekoa euskara da. Orain baino lehen hartu izan dut Bitoriano Gandiagaren olerki bat, hitz gutxitan dena esaten baitu: "*Euskara / Hizkuntza bat ez ezik / Herri bat ere bada*". Ikasiko ditugu beste hizkuntzak, gaztelania eta frantsesa, ingelesa, alemana eta abar, baina euskaldun euskarak bakarrik egingo gaitu. Lotuta daude euskara eta Euskadi. Bata pizten denean bestea indartzen da; bata zabaltzen denean, bestea sendotzen. Erakundeen bidez, legearen babesa eman diogu gure hizkuntzari, Euskadiko Erki-degoan gehienbat. Erabaki politikoa da,

beharrezkoa eta bidezkoa, euskara geurea delako, herritarrena eta herriarena. Lerro hauek idazten ari naizela, Bernardo Atxaga egokitu zait Euskadi Irratian. Mériméeren "Carmen" nobela izan du hizpide, handik Bizeten opera ezaguna, eta nola elkartu zituen euskarak Elizondoko Jose Lizarrabengoa eta Etxalarko Karmen Espainiako atzerrian, Sevillan, heriotza zigorra gainean Jose nafarrak aitortzen baitzion albokoari "gure hizkuntza, jauna, hain da ederra, non atzerrian entzuten dugunean zirrara eragiten digun". Kontaketa gaur egungo gertaera batekin josi du Atxagak, hegazkinean "komandantea berbetan" hasi zenean, alegia, hegazkineko pilotu-burua euskaraz entzuteak egin zion zirrarekin, gure herrian hainbestetan arrotz sentituta. Hau ez da pasadizo bat, ez. Badu mamia. Pentsarazi dit ze hutsune daukagun oraindik: euskal kulturako gertaerak zein ezezagunak zaizkigun, nahiz eta gazteak eta helduak, haurrak eta nagusiak harrapatzeko lain altxor daukagun, erabiltzeko prest. Maite egin behar gurea, eta maitatzeko, ezagutu. Ezagutarazi. Pentsamenduak eta konbikzioak emozioen zirrarekin bategiteko.

Nortasunaren harian, beste puntu bat ukitu nahi nuke, edo kontrapuntu bat, gaurko giroaz. Zenbait adituk dioenez, bada indibidualismo itsu bat, gero eta indar handiagoa duena eta arriskutsua. Iruditzen zait ez gaudela hortik salbu. Indibidualismoa gogortu ahala, ez dakit ez ote diren ahulduko herritarren loturak herriarekiko eta erakundeekiko, eta azkenean *ni, ni eta ni, nire gogoa eta kito*, norberaren desio dantzari eta aldakorrek politikaren eta herri-gintzaren neurri bihurtuta. Kezkatzekoa iruditzen zait gehiegizko kultura indibidualistak, kontsumismoaren eraginez sor dezakeen pentsaera guztion ona diren arloei buruz, adibidez, justiziaz: justizia gaizki ulertu ezker, eskubidedunak bilaka gaitetze eskubide guztien jabe bakar, beharrean datozenak baztertuz -ikusitako besterik ez dago etorkinei buruzko jarrerak-, edota herritarrak zerbitzuak eskatu besterik egin ez duten bezero bihurtuz, herria eta erakundeak eskubideak eskatzeko soilik balio duten zerbaitetzat joz.

Erronka hori dela eta, pentsatzen dut abertzaletasunak baduela erantzuna gaurko eta biharko belaunaldietarako: gutako bakoitzak hemengo dela jakitea da gakoa, euskalduna dela eta euskal herritarra, bere bizitza eta beretarrak Euskadiri lotuta daudela, hemen sustraituta eta herri honetakoak garela sentitzeak eta jakiteak ematen digula bakoitzari nortasuna: identitatea edukitzeak nonbaitekoa izatea esan nahi du, funtsean; guri dagokigunez, euskal sena eragiten du, eta hemengoak izateak guran daukan ondorioetako bat da Euskadiren eraikuntzaren subjektu izatera bultzatzen gaituela, herri eta nazio gisa, arlo guztietan, adibidez, gizartea batzen eta sendotzen duten gizarte-politiken eta elkartasunaren defentsan. Ez gaitezen deskuidatu: beharrean dauden pertsonak baztertzea da indarkeriaren hazia; beharrean daudenak babestea, bakea ereitea. Begirada luzea eta zuzena behar da politikan eta abertzaletasunean. Giza eskubideen ifrentzua, izan ere, giza eginbideak direlako, guztion onaren mesedetan.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN INGURUAN BAT EGINDA

Hau guztia egingarria izango den proiektu baten bidez gauzatu behar dugu, abertzaletasuna gidari, herriarekin eta gizarte eragileekin eskuz esku. Eta egingarria izateko ezinbestekoa iruditzen zait erabakitzeoko eskubidearen alde dauden indar politikoek elkarrekiko konfiantza berreskuratu eta ados jartzea, euskal herritar gehienak erakartzeko. Batasuna da Euskadik behar duen giltza nazio eskubideak gauzatzeko eta batasun hori nagusiki bi familia abertzale handiek eragin dezakete, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Sortuk, beraiek bat eginik erabakitzeoko eskubiderako bidea Legebiltzarrean landuz, euskal gizartearekin garatuz eta, Madrilerako joaterako, herriari galdetuz. Prozesu honetan, gero Legea behar adina aldatu beharko da euskal borondatarean egokitzeo, baita Nafarroa eta Iparraldeari dagozkionak ere.

Horiek horrela, batasunerako bidean harri batzuk dauzkagu, ordea, harri astunak. Kezka ematen dit politika desarmatzen zenbat kostatzen den, urtetako estrategia politiko-militarrak uzten dituen jarrerak eta jokaerak aldatu ezin bat, eta bestalde, kezkatzekoa iruditzen zait baita ere herri hau abertzaletasunaren barruko hegemonia borrokara eramatea. Ezin dugu horrelako dinamika zatitzaile onartu. Halaber, Euskadiren burujabetzan aurrera egiteko leial eta zintzo ari behar dugu politikan, ez eraso eginez ez eroso geratuz. Gure herriari Madrilek eta Parisek errespetua izateko, lehenbizi geuk izan behar diogu begirunea.

Beste gauza bat, legealdi bizi-bizia izango dela aurreikusiz. Gure eskubidea da Herria nolakoa nahi dugun erabakitzea. Beraz, ez gaitzela nahastu: erabakitzeoko eskubideak ez du herria zatitzen; erabakitzen ez uzteak zatitzen du, eskubide urraketa delako. Eta bestetik, ez dezagun sinetsi iraganeko kontua denik erabakitzeoko eskubidea. Oso gaurkoa da, bakea eta demokrazia sakontzen dituelako. Katalunian ezezik, Eskozian berriro egin nahi du SNPk erreferenduma, Brexitaren aurrean. XXI. gizaldirako ekarpen erabakigarria jotzen dut bateko eta besteko abertzaletasunek gidatzen dutena: Estatuei sortzea ematea, ez gerren eta bonben bidez baizik eta herritarren botoen bidez. Ba al dago era politiko jatorragorik Europako mapa berritzeko demokrazia bere betean gartzea baino... joko garbia egin ezker?

Erabakimena eta pazientzia. Eta aurrera. Erakundeak eta gizartea batera. Herrian ilusioa eta gogoia piztea dagokigu Euskadi Estatu izateko bidean jarri nahi dugunoi. Gizarte eragileek, dauzkagun gizon-emakume onenak, proiektu politiko berrian sormenez eta konbentzimenduz esku hartzera deituko ditugu, guztiona guztion artean egingo dugulako. Herritarrek azken hitza esango dugu, demokraziaren legea delako. Egiteko modukoa, hurrengo belaunaldiarentzat. Gure eskubidea delako eta nahi dugulako, egin dezagun.